



## TXOSTEN JURIDIKOA

### EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA BOSGARREN ADIZ ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA

ELN-010-2013-IV

Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak txosten hau egin du, apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak, Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, 11.1 d) artikuluan aurreikusitakoari eta abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurarenak, xedatutakoari jarraituz.

#### **1.- AURREKARIAK**

Gobernu Kontseiluak 2013ko ekainaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, X. legegintzaldiko (2012-2016) legegintza-egutegia onartu zen. Egutegi horrek, Segurtasun Sailaren atalean, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko legea aldatzeko lege-aurreproiektua egiteko aurreikuspena egiten du. 2014ko lehen seihilekoa da arau hori aurkezteko epea, eta huraxe aztertzea da, hain justu, txosten honen xedea.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legea da, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den hauteskunde-legea, eta, hura onartu zenetik, arau batek baino gehiagok aldatu dute gerora: 15/1998 Legeak, ekainaren 19koak; 6/2000 Legeak, urriaren 4koak; 1/2003 Legeak, martxoaren 28koak, eta 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak. Eta haren edukiaren zati batean eragina izan du abenduaren 23ko 6/2010 Legeak, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzkoak.

Hauteskunde-araubideko lege organikoaren artikulua gehienak aplikagarriak dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, eta lege organiko hori ere sarritan izan da aldatua. Aldaketa berrienak urtarrilaren 28ko 2/2011 lege organikoak eta urtarrilaren 28ko 3/2011 lege organikoak egindakoak dira.

Eta, azkenik, behar bezala islatu behar dira legearen aldaketa-prozesuan, bai Espainiako Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia, bai Hauteskunde Batzordeek emandako doktrina finkatua.

Azaldutakoaren harian, Segurtasuneko sailburuak agindu zuen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko legea aldatzeko lege-aurreproiektu bat egiteko, izapidetzeko eta Gobernu Kontseiluari aurkezteko prozedurari hasiera ematea, Eusko Jaurlaritzak oraingo legegintzaldirako egindako legegintza-egutegian aurreikusitakoaren arabera.

Aurreproiektu horren testua aztertzen du txosten honek, eta zioen azalpena, berrogeitahamahiru artikulua, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken-xedapen ditu, eskema hau jarraituz:

- a) Zioen azalpena.
- b) Berrogeita hamahiru artikulua.
- c) Lehen Xedapen Gehigarria.- Hauteskundeetarako diru-laguntzak eguneratzea.
- d) Bigarren Xedapen Gehigarria. – Sistema elektronikoen testak egitea.
- e) Lehen Xedapen Iragankorra.- Gastu-muga murriztea.
- f) Bigarren Xedapen Iragankorra.- Hauteskundeetarako diru-laguntzak izoztea.
- g) Xedapen Indargabetzaile Bakarria.
- h) Lehen Azken Xedapena- Irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak.
- i) Bigarren Azken Xedapena.- Indarrean jartzea.

## **2.- AURREPROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO OHARPENAK**

### **2.1.- ESKUMENA**

Aztertu beharreko proiektuak aldatu egin nahi du ekainaren 15eko 5/1990 Legea, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak du, modu eskusiboan, eskumen hori (Autonomia Estatutuko 10.3 artikulutik eratorria), eta, zehazki, haren gai-alor hau: “Barneko legegintza, Eusko Legebiltzarrari eragiten diona (...) Estatutu honetan araututako moduan...”. Eskumen hori egikaritzeko baldintza batzuk arautzen ditu EAEko Autonomia Estatutuaren 26. artikulua, hauteskunde-barrutiei buruzkoak, ordezkarietara proportzionaleko sistemari buruzkoak, hautagarri izan ezinezko eta bateraezintasuneko kariei buruzkoak (Euskadiko hauteskunde-lege batera igortzen du Estatutuak horien araupena), etab.

Izaera eskusiboz bereganatzen du eskumen hori, baina Espainiako konstituzioaren zenbait artikulua nabarmen zedarrizten dituzte eskumen hori erabiltzeko aukerak. Horiek horrela, Espainiako Konstituzioaren zenbait eskumen-titulua eskumen-erreserbak egiten dituzte Estatuaren alde; esaterako, 149.1.1 artikulua arau bereko 23. artikuluaekin, eta Estatuaren aldeko beste eskumen-titulu batzuk, aplikagarriak izan daitezkeenak, hala nola 149.1.18. artikulua (herri-administrazioen araubide juridikoaren oinarriak) eta 149.1.6. artikulua (prozesu eta zigor arloetako legeria).

Horrenbestez, Estatuaren eskumenei hauteskundeen gai-alorrean Euskadiko botere legegileari eragiten dizkien mugak aztertu behar dira.

Espainiako Konstituzioaren 149.1.1. artikuluko eskumen-titulutik eratortzen da Estatuaren hauteskunde-alorreko eskumena, artikulua horrek arautzen baitu Estatuari dagokiola bermatzea herritar guztien botoa emateko oinarritzko eskubidea baliatzeko oinarritzko baldintzak. Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 81.1. lege organikoaren

erreserba egiten du, funtsezko eskubideak garatzeko. Eskubide horien artean dago sufragio-eskubide aktiboa eta pasiboa, bai eta hauteskunde-araubide orokorra ere.

Horrenbestez, Estatuak hauteskunderen gai-alorrean ematen duen legeriak estaldura bikoitza du, baina norainokoa ez da berdina bi kasuetan. Lege organikoz arautzeko erreserba bi gai-alor osagarritan ezartzen da. Osagarriak dira, bai, baina ez berdinak: "sufragio-eskubidearen funtsezko edukiaren garapena" eta "hauteskunde-araubide orokorra".

Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua aitortzen du sufragio-eskubide aktiboa eta pasiboa, eta arautzen du hura osorik eta modu eraginkorrean erabiltzeko botere publikoek zenbait tresna eta mekanismo formazko, prozedurazko eta tekniko ezarri eta jarri behar dituztela, hauteskunde-araubidearen baitan. Osagarriak izanda ere, Espainiako konstituzioaren 81.1. artikulua berak esaten du bi gauza ezberdin direla sufragio-eskubide oinarrikoaren garapena eta hauteskunde-araubidearen garapena.

Sufragio-eskubidearen garapenari dagokionez, lege organikoak garatu behar du hura zuzenean. Erreserba horrek ez du edozein aipamen edo garapen barne hartzen; izan ere, konstituziogilearen lanaren osagarri ezinbestekoa edo beharrezkoa izan behar du, lan hori osatzeko materialki nahitaezkoa dena garatu behar da lege organikoz. Horrek ez du esan nahi lotutako gai-alorrak arautu ezin daitezkeenik, araubideko arauak eta haien formulazioa hobetzeko, baina lege organikoko erreserbari ez dagozkion arauak ematen badira edo erreserba hori gairatzen bada, berariaz adierazi behar da emandako arauak ez dutela izaera organikorik.

Horren haren, zehaztu behar da Espainiako Konstituzioaren 149.1.1. artikulua arautzen dituen "oinarriko baldintzak" ez direla "Espainiako Konstituzioaren 53.1. artikulua adierazten dituen eskubideen funtsezko edukiarenak, eduki hori herritarraren bermea baita botere publiko guztiekiko, eta muga komun bat ezartzen baitie Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legegileei". Horiek horrela, Espainiako Konstituzioaren 149.1.1. artikulua ez du Estatuaren esku uzten autonomia-erkidegoetako legediak harmonizatzeko eskumenak, eta Estatuak ezin du artikulua hori baliatu autonomia-erkidegoen eskumenak murrizteko. Hori dela-eta, Estatuko legegileak ahalmena izan dezake sufragio-eskubide oinarrikoaren araubideko elementu eta alderdi oinarrikotzat izendatzeko herritarrek eskubide hori berdintasunez baliatzeko posizio juridiko funtsezkoa bermatzeko ezinbestekoak edo beharrezkoak diren elementu eta alderdiak; baina hori egin dezake, betiere, izaera hori duten neurrian. Hau da, alderdi edo elementu horiek lotura zuzena izan behar dute eskubidearen erabilerarik, eta eman behar duten bermea emateko egokiak, arazoizkoak eta proportziozkoak izan behar dute.

Espainiako konstituzioak aipatzen duen "hauteskunde-araubide orokorrari" dagokionez, Konstituzio Auzitegiak argitu du hura arautzea ez dela "sufragio-eskubide oinarrikoaren garapena egitea" eta ez dela "hauteskunde orokorrak" kontzeptuaren sinonimoa (Konstituzio Auzitegiak emandako 38/1983 epaia); hala, araubide horrek "...hauteskunde-araubideko alderdi primario eta nuklearrak" arautzen ditu, eta haren edukia osatzen dute "Estatu osorako eta haren antolamenduaren baitako lurralde-erakunde guztientzat baliozkoak diren hauteskunde-arauak, Espainiako Konstituzioaren 137. artikulua araututakoaren baitan, salbu eta Konstituzioan eta autonomia-estatutuetan arautzen diren salbuespenen kasuan" (Konstituzio Auzitegiaren

38/1983 epaia). Alderdi primarioak eta nuklearrak arautzera mugatu behar duenez, zentzu murriztaile batean ulertu behar da lege organikoaren erreserba eta Estatuaren eskumen-gaikuntza.

Aintzat hartuta Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 225\1998 epaiak erabakitakoa, nabarmentzekoa da Estatuan nahiz autonomia-erkidegoetan hauteskunde-sistema arautzeko eskumena duten legegileek, hura arautzeaz gain, sufragio-eskubidea ere arautzen dutela, nahiz eta Konstituzioak agintzen duen lege organiko bidez arautu behar direla sufragio-eskubidearen funtsezko alderdiak. Horiek horrela, arautzeko eremu zabala ematen zaie legegileei, baldin eta sufragio-eskubidearen funtsezko edukia errespetatzen badute. Ildo horretatik, beraz, autonomia-erkidegoetako legegileek eremu edo askatasun handia dute, lege organikoak arautzen duena errespetatu ondoren, beren hauteskunde-araubidea diseinatzeko. Araubide horrek “eragina” izan dezake sufragio-eskubide funtsezkoan, Konstituzio Auzitegiak erabaki baitu Konstituzioaren 81. artikulua arautzen duen garapenak zuzenak eta zorrotza izan behar duela, eta garapen hori “ezin dela parekatu eragite hutsarekin” (Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 129/1999 epaia).

Horrenbestez, Estatuako legegile organikoak, teoriari erreparatuta bederen, sufragio-eskubidearen erabilera funtsean berdintsua izango dela bermatzera mugatu behar du, hauteskunde-prozesua edozein dela ere; hala, tarte bat utzi behar dio autonomia-erkidegoko legegileari, bere hauteskunde-araubide espezifikoa ezar dezan.

Espainiako Gorte Nagusiek Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa eman zuten, HAOLO delakoa, sufragio-eskubidearen funtsezko alderdiak garatzeko eta “hauteskunde-araubide orokorra” definitzeko. Lege horri hainbat aldaketa egin zaizkio 1985. urtetik aurrera, eta azkenak urte honetan bertan egin dira.

Espainiako Konstituzio Auzitegiak, 154/88 epaian, HAOLO legea konstituzionaltasun-parametroaren elementuetako bat dela adierazi du; baina, adierazpen hori nabartuz, honako hau nabarmendu du: “Konstituzioaren 149.1.1 artikulua Estuari ematen dion eskumen horren erabilera berariazkoak Auzitegi hori behartzen du, Estatuako arauak beren buruaz egiten duten definizioa nabardurarik gabe onartzera mugatu ezin duenez, Estatuako legegileari balioztatze-tarte bat ematera, lurralde nazionalen antolamendu uniformeak izan behar duten hasierako baldintza finkatu behar baititu, oinarritzkoak diren heinean”.

HAOLO lege organikoaren lehen xedapen gehigarriak arautzen du haren zer xedapen diren autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeetan aplikatzekoak, “nahiz eta, Konstituzioak eta lege organiko honek arautzen dutena errespetatu ondoren, autonomia-erkidegoek baliatu ahal izango dituzten beren estatutuek haien esku uzten dituzten eskumenak”.

Horiek horrela, zuzenean aplikatzekoak dira HAOLO legearen xedapen hauek:

I. titulutik: 1 - 42; 44; 44 bis; 45; 46.1, 2, 4, 5, 6 eta 8; 47.4; 49; 50.1, 2 eta 3; 51.2 eta 3; 52; 53; 54; 58; 59; 60; 61; 62; 63; 65; 66; 68; 69; 70.1 eta 3; 72; 73; 74; 75; 85; 86.1;

87.2; 90; 91; 92; 93; 94; 95.3; 96; 103.2; 108.2 eta 8; 109 - 119; 125 - 130; 131.2; 132; 135 - 152.

HAOLO legearen II., III., IV. eta V. tituluetako edukia.

Autonomia-erkidegoek arautzen ez dituzten alderdietan, ordezko zuzenbide izango dira HAOLO legearen I. tituluko gainerako artikulua.

HAOLO legeak ez du adierazten zer xedapenek duten lege organikoaren izaera, zer xedapen jaso dituen arauak loturakoak edo beharrezko osagarriak direlako, eta zer xedapen diren Espainiako Konstituzioaren 149.1.1 artikuluko "oinarrizko baldintzak" ezartzeko arautuak. Bereizte-lan hori HAOLO legearen ondorengo doktrina konstituzionalaren argitara egin behar da, eta doktrina horrek dio lege organikoaren izaera ez duten xedapenak lege arrunteko xedapen gisa identifikatu behar dituela arauak berak.

Edonola ere, adierazitako doktrina konstituzionalaren arabera interpretatu behar da lege organikoa, eta, ondorioz, Eusko Legebiltzarrak errespetatu egin behar du HAOLO legearen edukia, eta, zehazki, erreserbatutako den gai-alorraren muga materialen baitako xedapenak.

HAOLO legeak ez die jarduteko tarte handirik uzten estatutuetako eta autonomia-erkidegoetako legegileei, haren 116. artikulua baitira, legeak berak arautzen duenez, autonomia-erkidegoetako hauteskundeetan aplikatzekoak. Doktrinak kritikatu egin du jardun-molde hori. Gai-alor hauek hartzen dituzte autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskunderi zuzenean aplikatzekoak zaizkien artikuluek:

a) Sufragio aktiboko eskubidearen definizioa (2 - 5. artikulua) eta sufragio pasiboko eskubidearena.(6 - 7. artikulua).

b) Hauteskunde Administrazioaren araupena (8 - 30. artikulua), hautesle-errola (31 - 41 artikulua) eta hauteskunde oro deitzeko baldintza orokorrak (42. artikulua).

c) Hauteskunde-prozedura, eta, zehazki: nork aurkez ditzakeen hautagaiak (44. artikulua); hautagaitzek bete beharreko baldintza eta formaltasunak (45. eta 46. 1,2,4,5,6 eta 8 artikulua); hautagaitzen proklamazioaren aurkako erreklamazioen (47. artikulua) eta errekurtsioen (49. artikulua) araubidea; hauteskunde-kanpaina (51.2 eta .3 artikulua) (gehienezko epea eta hausnarketa-eguna); herritar jakin batzuek duten debekua, beren kargua edo lanbidea dela-eta, kanpaina-ekitaldietan parte hartzeko (52. artikulua); hauteskunde-kanpainako ekitaldiei aplikatzekoak zaizkien xedapenak (53. eta 54. artikulua); gizarte-komunikabide pribatu eta publikoek hautagaitzak eskuratzeko moduari buruzko arauak (58 - 63., 65 - 67. artikulua); hauteskunde-inkesten araubidea (69. artikulua); Hauteskunde Administrazioaren eskumenen zehaztapena eta alderdi politikoek boto-paperekiko duten interbentzioa (70.1 eta .3 artikulua); posta-bidezko botoaren araubidea (72 - 75. artikulua); hautesleak identifikatzeko araubidea (85. artikulua), botoaren izaera sekretua (86.1 artikulua); hauteskunde-mahaietako kideen immunitate-araubidea (90. artikulua); hauteskunde-mahaietako presidentearen eskumenak (91 - 92. artikulua); hauteskundeetarako lokalek bete behar dituzten gutxienezko baldintzak (93. artikulua); hauteskunde-lokaletan gertatzen diren

intzidenteak jasota uzteko betebeharra (94. artikulua); Estatuaren ordezkari diren erakunde batzuetarako hauteskunde-prozesuak aldi berean ematen direnerako araubidea (95. artikulua); boto baliogabearen, zuriaren, eta, ondorioz, baliozko botoaren kontzeptuak (96. artikulua), kontaketa (103.2 artikulua); erreklamazioen araubidea eta hautetsiak beren kargua hartzeko ekitaldiaren baldintzak (108.2 eta 8. artikulua); hauteskunde-alorreko auzien araupena (109 - 119. artikulua); hauteskundeen finantzazio-araubidea (125 - 132 artikulua); sufragio-eskubidearen babes penala (135 - 152. artikulua).

Eskumenak mugatzeko arautzen diren irizpide horiek aplikatu ondoren, ondoriozta daiteke, auzi hori aztertu duten aztertzaile ugari egin duen moduan, HAOLO legeak bere eskumenez gaindi arautu duela autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozeduren garapen xehekatua.

Hori horrela izanda, autonomia-erkidegoko lege bat Espainiako Konstituzioaren aurkakoa dela esateko, ezinbestekoa izango da, horren arrazoia bada eskumenen antolamendu konstituzionala urratu duela (estatuko legea ez bada bete, Estatuak bere eskumenak erabili ondoren), beharrezkoa litzateke Estatuko lege hori Konstituzioak araututako antolamendua errespetatzea. Hori horrela ez bada (hau da, autonomia-erkidegoko legea HAOLO legearen xedapenen aurkakoa balitz ere), dibergentzia formal baten aurrean geundeke, ez dibergentzia material baten aurrean; beraz, ezingo litzateke esan konstituzioaren aurkakoa denik.

Ondorioz, esan behar da EAEko legegileak eskumena duela Eusko Legebiltzarrerako araubidea arautzeko; betiere, behar bezala betetzen baditu Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 26. artikulua eta hauteskunde-araubideko lege organikoak arautzen duena.

## **2.2.- AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA**

Aurreproiektuaren xedapen-zatiak berrogeita hamahiru artikulua ditu, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta bi azken xedapen.

2.2.1.- Aurreproiektuaren xede nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-legea HAOLO lege organikoak 2011n izan dituen aldaketetara egokitzea; beraz, egokitzen hori egiteko modua azter dezakegu, proposatutako aldaketaren xedapenak eta xedapen horiek HAOLO aldatuan duten xedapen parekideen aginduak konparatuz:

- Administrazio publikoaren edo Estatuaren erakundearen aurkako delituak egiteagatik epai bidez kondenatuak izan diren pertsonak ezingo dira hautatuak izan (HAOLOko 6.2.b artikulua eta lege-aurreproiektuaren zazpigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 4. artikuluari 7. idatz-zati bat eransten diona). Hori horrela izango da, epaia irmoa ez bada ere.

- Hautesleen adina handitzea hauteskunde-mahaietako kide izateko (HAOLO legearen 26.2. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hamabosgarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 43.2. artikuluari erreferentzi egiten diona).

- Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek duten betebeharra labur arrazoitzeko zergatik ezetsi dituzten aurkeztutako zuribideak (HAOLO legearen 27.3. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hamaseigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 44. artikulua 1. idatz-zatia aldatzen duena).
- Eskualdeko eta Probintziako Hauteskunde Batzordeen eskumenen modulazioa, Hauteskunde Batzorde Zentralak (edo, hauteskunde autonomikoetan, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak) emandako irizpide bateratzaileen baitan (HAOLO legearen 27.3. eta 54.1. artikulua, eta lege-aurreproiektuaren bederatzigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 29.e artikulua aldatzen duena).
- Hautesleek bozketan parte har dezaten sustatzeko kanpainen debekua hauteskunde garaian (HAOLO legearen 50.1. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeita hirugarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legeari 68.bis artikulua eransten diona).
- Debekua, botere publikoentzat, haien lorpenak zabalduko dituzten ekitaldiak antolatzeke hauteskunde-garaian (HAOLO legearen 50.2. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legeari 68.bis artikulua eransten diona).
- Debekua, hauteskunde garaian, obrak, zerbitzuak edo proiektuak inauguratzeko (HAOLO legearen 50.3. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeita hirugarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legeari 68.bis artikulua eransten diona).
- Debekua hautagaitzentzat kanpaina-garaitik kanpo hauteskunde-propaganda zabaltzeko (HAOLO legearen 53. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeita laugarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 71. artikulua aldatzen duena).
- Telebista publikoek hauteskundeetan egin behar duten informazioaren tratamendua telebista pribatuei aplikatzea hauteskunde garaian (HAOLO legearen 66.2. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeita hamabigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 85. artikuluari 2. idatz-zati bat eransten diona).
- Bozketen aurretik hauteskunde-azterketa egiteko debekuari “erreprodukzio” terminoa gehitzen zaio (HAOLO legearen 69.7. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeita hamahirugarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 87. artikulua 7. idatz-zatia aldatzen duena).
- Atzerrian bizi diren egoiliar absenteen bozka berriaren araupenerako igorpena (HAOLO legearen 75. artikulua eta lege-aurreproiektuaren berrogeita seigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legeari 132 ter artikulua eransten diona).
- Itsutasuna duten pertsonen bozka pertsonal eta irisgarriarekiko aurreikuspena (HAOLO legearen 87.2. artikulua eta lege-aurreproiektuaren hogeita hamaseigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 104. artikulua 3. idatz-zatia aldatzen duena).

- Boto baliogabearen araupen berria, boto-paperen aldaezintasun partzialaren printzipioan oinarrituta (HAOLO legearen 96.2. artikulua eta lege-aurreproiektuaren berrogeigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 115. artikulua aldatzen duena).

- Hauteskundeetarako diru-laguntzak ez ordaintzea hautagaitzei Hauteskunde Administrazioak hala erabakitzen badu, baldin eta, betiere, karguaren eskurapen osoa haren egiazko egikaritzea justifikatzen ez bada (HAOLO legearen 127.2. artikulua eta lege-aurreproiektuaren berrogeita zortzigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 114. artikuluari bederatzigarren idatz-zati bat eransten diona).

- Debekua, edozein erakundek, pertsona fisikok edo juridikok 10.000 euro baino gehiagoko ekarpena egiteko, deialdiko hauteskundeetarako alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte batek berak dirua biltzeko irekitako kontuetan (HAOLO legearen 129. artikulua eta lege-aurreproiektuaren berrogeita bederatzigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 145. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen duena).

- Hauteskunde Batzordeek errekursoak hauteskunde-prozesutik kanpo ebazteko izango duten epearen finkapena, bai hauteskunde-garaian bai hauteskunde-garaitik kanpo (HAOLO legearen 121.1. artikulua eta lege-aurreproiektuaren berrogeita zazpigarren artikulua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-legearen 134.1. artikulua aldatzen duena).

Zerrendatu diren xedapen horien guztien helburua da autonomia-erkidegoko legea egokitzea HAOLO lege organikoak izan dituen aldaketetara, azken arau horren izaera organikoa aintzat hartuta eta EAeko hauteskunde-legegileak arautu dezakeen eremuan jardunda.

Aurreproiektu honetan, bi teknika erabili dira: kasu batzuetan, HAOLO legearen xedapenak kopia daitezke; beste batzuetan, berriaz idazten da HAOLO legearen araupenera; eta, zenbait kasutan, HAOLO legearen xedapen baten zati bat kopiatzen da eta lege horretarako igorpena egiten da.

Espainiako Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari erreparatuta, esan daiteke teknika arriskutsua izan daitekeela, autonomia-erkidegoko lege batentzat, Estatuko arauak kopiatzea, konstituzioaren aurkakotasunaren mugak gaindi baititzake, eta, zenbait kasutan, konstituzioaren kontrako jarduna izan daiteke argi eta garbi, baldin eta eskumenak urratzen badituzte autonomia-erkidegoak arautzekoak ez diren gai-alorretan. Horrenbestez, legegintza-teknikako kontuak gainditzen dituen auzia da.

Auzi hori erabakitzeko, lehenik eta behin argitu behar da ea norberaren eskumenen eremua gainditzen den ala ez Estatuko arauak kopiatzean. Gogoratu behar da Espainiako Konstituzio Auzitegiak hau esan duela 35/1983, 10/1982 (8. oinarri juridikoa), 62/1991 [4 oinarri juridikoen b) atala] eta 147/1993 (4. oinarri juridikoa) epaietan: "Legegintza-teknika arriskutsua da lege autonomikoentzat Estatuko arauak kopiatzera mugatzea, eta, horrez gain, konstituzioaren kontrako jarduna da, eskumenak urra baititzakete autonomia-erkidegoak arautzekoak ez diren gai-alorretan". Autonomia-erkidegoak arau-gaikuntzarik ez badu, Konstituzioaren kontraketatik jo



beharko litzateke Estatuko araua kopiatzen duen arau autonomikoa (horren salbuespena litzateke Konstituzio Auzitegiak martxoaren 25eko 47/2004 epaian adierazitako suposamendu apartekoak).

Aurreproiektu honen kasuan, haren testua eta HAOLO legearen aldaketen testuak aztertuta, ikusten da ez direla aurreproiektuan jaso HAOLO legeari egin zaizkion azken aldaketetako beste xedapen batzuk, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aplikatzekoak ez direnak. Ez dira aurreproiektuan jaso, ezta ere, hautesle-erroldei dagozkien xedapenak, hauteskundeetan aplikatzekoak diren arren, gainditu egiten baitute Eusko Legebiltzarraren eskumen-eremua.

Horiek horrela, HAOLO lege organikoa eta hari berriki egin zaizkion aldaketa aztertuta, ondoriozta daiteke aurreproiektuak ez dituela haren testutik at uzten indarreko HAOLO legeak beharrezkoak zituen egokitzapenak.

Aurreproiektuak, beraz, Estatuko araua kopiatzen du, autonomia-erkidegoko legegileak eskumen-gaikuntza propioa eta erabilgarria duen gai alor batean. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak, kasu horietan, gogoratzen du ez dela komeni horrelakorik egitea konstituzioaren aurkakotasunaren arriskua ekar dezakeelako, baldin eta kopiatu den araua indargabetzen bada edo hari aldaketak egiten bazaizkio; hala ere, zehazten du jardun horren ondorioa ez dela beti izango konstituzioaren aurkakotasuna, beti begiratu behar baita, aldeztu aurretik, Estatuko legea kopiatzeak zer-nolako eragin edo ondorioak dituen kasu konkretu bakoitzean.

Eta, ildo horretatik, esaten du ez dela konstituzioaren aurkakotasunik gertatzen, baldin eta kopiatzearen jardunaren xedea bada autonomia-erkidegoko araubidean jasotzea Estatuko ordenamenduko zenbait xedapen, autonomia-erkidegoko arau zehatzari zentzua edo ulergarritasuna emateko. Horren baldintza da, noski, autonomia-erkidegoaren eskumen-eremuaren baitan egitea.

Lege-aurreproiektu honi dagokionez, beharrezkoa da HAOLO legearen xedapenak kopiatzea, onartu nahi den arau-testuari zentzua emateko; izan ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan baliagarria izango den araupen orokor, oso eta integral bat eman nahi bada, sufragio-eskubide funtsezkoaren erabilpena arautuko duena, egokia da HAOLO lege organikoko edukiak jasotzeko araugintza-aukera baliatzea, araupena ez bailitzateke ulergarria izango hori egin gabe. Horrez gainera, eta horrekin batera, desitxuratu egiten dira autonomia-erkidegoko legegileak, bere egituratze-askatasunaren baitan, arau hori ematean lortu nahi dituen helburu legitimoak.

Ildo horretatik, ezin da ahaztu sufragio-eskubidearen titular diren herritarrak izango direla testuaren hartzaileak; beraz, aukera arrazoizkoa eta justifikatua da lege-testuaren artikuluen artean zenbait xedapen jasotzea, eskubidearen edukia eta haren erabileraren printzipioak eta mugak adierazteko.

Bestalde, aztertzen bada Espainiako Konstituzio Auzitegiak lex repetita kasuetarako bere jurisprudenzian adierazi duen «konstituzioaren aurkakotasunerako potentzialtasuna» (legegile orori, Estatukoari nahiz autonomia-erkidegokoari, aplikatzekoa da), ikusi behar da, kasu honetan, arrisku horrek intentsitate nahiko erlatiboa duela ab initio: ez da erokeria bat pentsatzea sufragiorako eskubide

funtsezkoaren arauketa organikoak denboran iraungo duela. Edo, bestela esanda, arrazoizkoa da pentsatzea HAOLO lege organikoa ez dela epe ertainean aldatuko, Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua garapen organikoa egiten duen atalean.

Estatuko araua zati batean kopiatzea eta, ondoren, HAOLO legearen oinarriko artikuluetara igortzeko teknika erabiltzea hobetsi den kasuetan, teknika horrek ez dakar segurtasun juridikoko arazorik; izan ere, gerora aldatzen badira hitzez hitz kopiatu diren HAOLO lege organikoko artikuluko edo xedapen zehatz horiek, aurreproiektuan igorpena egiten duten artikuluek indarrean jarraituko dute, aldatu beharrik izan gabe. Adierazi behar da arauetara egindako igorpenak, hasiera batean, legegintza-teknika onargarriak direla, baldin eta ez bada haien erabilera gehiegizkorik egiten, eta behar bezala egiten badira, igorpena osoa eta ulergarria izan dadin.

Azaldutako hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatu behar da aurreproiektua Konstituzioaren arabera dela, behar bezala hartzen dituelako, indarreko HAOLO legetik, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aplikatzekoak diren xedapenak, eta ez dituelako HAOLO legeak arautzen dituen beste gai-alor batzuek arautzen, autonomia-erkidegoaren eskumen materialetik kanpo geratzen direnak (hautesle-errolak, prozesu eta zigor arloetako legeria, etab.).

2.2.2 Hori guztia argitu ondoren, indarreko 5/1990 Legea, ekainaren 15koa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa, zer gai-alor jakinetan aldatzen den azter dezakegu. Hauek dira aldaketa horiek, laburtuta:

A) Sufragio pasiborako eskubidea:

**Lehenengo artikulua** 5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. idatz-zatiko a) hizkia aldatzen du. “*Enpresa*” terminoa eranstean dio eta “erakunde instituzionalak” terminoaren ordez “herri-erakundeak” hobesten du. Aldaketok zehaztasun terminologikoa dute helburu.

**Bigarren artikulua** 5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. idatz-zatiko b) hizkiaren bigarren eta hirugarren gidoiak aldatzen ditu horien idazketan genero-ikuspegia txertatzeko.

**Hirugarren artikulua** 5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. idatz-zatiko e) hizkia aldatzen du. Argitu egiten du hautatua izateko ezintasunaren arrazoen zenbait alderdi. Besteak beste, zehaztu egiten da hautatua izateko ezintasun-karien araubidea sozietate-kapitala herri-administrazioen partaidetzaz osatua duten sozietate edo enpresa publikoetako karguentzat, aurreproiektuaren 4. artikuluko 3. idatz-zatiaren a) hizkian ezarritakoaren arabera. Hori guztia arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak horri buruz hartu dituen erabakiak betetzeko (1990-09-29ko erabakia, 194. zenbakiko EHAA, 1990-09-27koa; 1994-09-10eko erabakia, 178. zenbakiko EHAA, 1994-09-19koa; 2005-03-22ko erabakia, 49. zenbakiko EHAA, 11-03-2005-03-11koa).

**Laugarren, bosgarren eta seigarren artikuluek** aldatu egiten dituzte, hurrenez hurren, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 4. artikuluko 4., 5. eta 6. idatz-zatiak,

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetara aurkezten diren hautagaiei aplikagarri zaizkien hautaezintasunei buruzkoak.

Bestalde, **zazpigarren artikulua** 7. idatz-zati bat eransten dio 5/1990 Legearen 4. artikuluari, epai bidez kondenatuak izan diren pertsoneri aplikagarri zaien zenbait hautaezintasunari buruzkoa (HAOLOko 6.2.b artikulua). Hori horrela izango da, epaia irmoa ez bada ere.

B) Hauteskunde-administrazioa:

Aurreproiektuaren **zortzigarren artikulua** 5/1990 Legearen 20. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen du. Artikulu horrek ezartzen duenez, Legebiltzarreko letratuek, baita informatika-zerbitzuak ere, behar den aholkularitza juridiko eta teknikoak burutuko dituzte, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordeari agindutako eginkizunak betetzeko. Horrekin bilatzen da Batzorde horrek Eusko Legebiltzarreko informatika-zerbitzuen aholkularitza izatea; izan ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen euskarri informatikoa beharrezkoa izan daiteke aurreproiektuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako bozketa elektronikoen testak aurrera eramateko.

**Bederatzigarren artikulua** Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen doktrinak lurralde historikoetako eta eskualdeetako hauteskunde-batzordeen erabakiak bateratzeko gaitasuna indartzen du hauteskunde-araubidearen aplikazioaren gai-alorrean, beti ere HAOLO legearen 19.3.d) artikuluan araututako termino berberetan, azken horri 2/2011 Lege Organikoak eman dien idazketan.

**Hamargarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legearen 29. artikuluko j) hizkia aldatzen du. Eurotan zehazten ditu pezetatan ezarritako isunen zenbatekoak, eta barne hartzen du Legearen 87.7 eta 132. artikuluetan xedatutako salbuespena.

Horrez gainera, lurralde historikoetako eta eskualdeetako hauteskunde-batzordeek ezar ditzaketen zehapenen gehieneko zenbatekoak arautzen dira. Zenbateko horiek, oro har, 1.200 eurokoak eta 600 eurokoak dira, hurrenez hurren. Hori egiteko, aldatu egiten da 5/1990 Legearen 30. artikuluko 1. puntuko d) letra, HAOLO lege organikoaren 19.2. artikuluko aldatuaren ildoan.

**Hamabigarren artikulua** 3. idatz-zatia eransten dio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legearen 36. artikuluari. Idatz-zati horretan xedatutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordearen akordioak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena. Aldaketa horrek artikulua hobetzea dakar; izan ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen web ofiziala errealitate bat da, eta interesgarri deritzogu aurreproiektuan errealitate hori aintzat hartzea, kontuan izanik hauteskunde-informazioaren arloan teknologia berriek izan duten garapena.

**Hamahirugarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 38. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen du. “Internet” terminoaren ordez “web orria” hobesten du, estiloa hobetze aldera.

Halaber, **hamaseigarren artikulua** 5/1990 Legearen 44. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen du, HAOLO lege organikoaren 27.3 artikulua xedatzen dituen terminoetan; hala, eskualdeko hauteskunde-batzordeak derrigortzen ditu modu laburtuan arrazoitzera zergatik ezetsi dituzten mahaikide ez izateko aurkeztu diren zuribideak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak irizpideak bateratzeko duen ahalmena arautzen da.

**Hogeita hamalagarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 88. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen du, formatu elektronikoa ezartzeari buruzkoa hauteskundeetara aurkeztuko den hautagaien boto-txarteletarako, zein hauteskundeetako zenbait inprimakietarako ere. Aldaketa horren xedea da teknologia berriak hauteskunde prozesuan txertatzea.

Teknologia-berrikuntza horri esker, hautesleek, edozein lekutan bizi direla, Eusko Jaurlaritzako webgunetik jaitsi ahal izango dute hautatutako boto-papera. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak, paper-euskarrian eskaintzen jarraituko die hautesleei hautagaitza guztien boto-paperak.

**Berrogeita hirugarren artikulua** 5/1990 Legearen 132. artikulua aldatzen du hauteskunde-arauak hausteagatik eurotan ezarritako zehapenen zenbatekoa HAOLO legean jasotako zenbatekoekin parekatzeko (153.1 eta 2 artikulua).

Bestalde, hauteskunde-batzordeek hauteskunde garaian eta garai horretatik kanpo errekursoak ebazteko izango dituzten epeak zehazten dira (**berrogeita zazpigarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 134. artikulua, HAOLO lege organikoaren indarreko 121.1. artikulua arautzen duenaren harian).

Horrekin batera, kendu egin da errekursoaren aurka errekurso judizialik ez zegoela ezartzen zuen xedapena. Horrela jokatuta, Espainiako Konstituzio Auzitegiaren doktrinari erreparatzen zaio (149/2000 epaia, ekainaren 1ekoa), hauteskunde-batzordeen administrazio-egintzen legezkoatasunaren kontrol judizialaz diharduenean.

C) Hauteskunde-prozedura:

Hauteskunde-mahaiei eta horien osaketari dagokienez, **hamalagarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 42. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen du, hauteskunde-mahaietan titular edo ordezkoko gisa parte hartzerik ez dutela adierazteko aukera izango dutelarik, beharrezko agiriak edo, hala behar duenean, medikuaren egiaztagiria aurkezturik, besteak beste, haurdunaldian seigarren hilabetetik aurrera eginda dauden emakumeak eta amatasun atsedenen aldian daudenak, eta bederatzi hilabetera arteko haurra edoskitzen ari direnak.

Hori guztiori, indarrean den Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen babesean (4/2005 Legea, otsailaren 18koa), hauteskunde-prozesu autonomikoetan berdintasuna lortzeko.

Hauteskunde-mahaiak eta haien osaera arautzean, hirurogeita hamar urtera igotzen da adina, baina horrek ez du esan nahi betebeharra denik hautesle horientzat (**hamabosgarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 43. artikuluko 2. idatz-zatia, HAOLO legearen 26.2.1. artikulua harian).

**Hemeretzigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Legearen 50. artikuluko 2. idatz-zatiaren b) hizkia aldatzen du hautagaitzako kideen izen-abizenen ondoan horien ezizena edo goitizena jartzeko, gai-arlo horretan Hauteskunde Batzorde Zentralak emandako doktrinarekin bat etorritik (HBZren erabakia, 2008ko urtarrilaren 24koa).

Aurreproiektuaren **hogeigarren artikulua** 5. idatz-zatia eransten dio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 50. artikuluari, hautagaitzetako ordezkoren zerrendan genero-kuotak aplikatzeari buruzkoa (AEHBren erabakia, 2005eko martxoaren 17koa).

Hauteskunde-kanpainetako publizitate-araubidea aldatu da. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak hauteskunde-prozesuari buruz egiten duen kanpaina instituzionala alderdi hauen berri ematera mugatzen da: bozketaren eguna eta lekua, botoa emateko prozedura eta boto-eskubidea erabiltzeko gainerako formalitateak, atzerrian bizi diren egoiliarrenak barne. Erantsi egiten da hauteskunde-kanpainari buruzko publizitateak bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko duela (**hogeita bigarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 68.3. artikulua, HAOLO legearen 50.1. artikulura egokitzeke). Horrenbestez, hauteskunde-kanpaina instituzionaletan ezingo da parte-hartzea sustatu.

Hauteskunde-kanpainaren edukia zabaltzea beharrezkoa suertatzen da, izan ere, praktikan, 2009 eta 2012ko hauteskundeetan egin izan da jada. Bestalde, hauteskunde-kanpainan bi hizkuntza ofizialak erabiltzearena Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legetik eratortzen da (10/1982 Legea, azaroaren 24koa).

Halaber, debekatu egiten da hauteskunde-kanpainak publizitate instituzionala egitea, legegintzaldian egindako lorpenei buruzko ekitaldi instituzionalak egitea eta obrak, zerbitzuak edo proiektuak inauguratzeko edo aurkezteko ekitaldiak egin edo haien berri ematea (**hogeita hirugarren artikulua**, 68 bis artikulua berri bat eransten dio 5/1990 Legeari, HAOLO legearen 50.2 eta 3 artikuluetara egokitzeke). Arau horren urratzeak zehatzeko araubidea ezartzen da.

Bestalde, **hogeita laugarren artikulua** 5/1990 Legearen 71. artikulua aldatzen du. Hauteskundeetan aurkezten diren talde politikoek posta bidezko botoaren izapideei buruzko informazioa eman dezakete. Halaber, hautagaiak eta hauteskunde-programak aurkez ditzakete, baldin eta botoa eskatzen ez bada ekitaldi edo mitinetan, edota liburuxkak edo kartelak banatzen ez badituzte. Era berean, hautagaiak eta ordezkariak aurkez ditzakete edozein hedabidetako elkarrizketetan eta mahai-inguruetan, baita talde politiko baten hautagaien argazkiak, izena, hautagaitzaren siglak edo sinboloak edo hauteskunde-sloganak erakustea ere talde horren egoitzetako eta lokaletako kanpoko fatxadetan.

Era berean, alderdiek web orriak, blogak eta gizarte-sareak sor edo erabil ditzakete, edo hautagaiak eta hauteskunde-programa ezagutarazteko mezuak edo posta elektronikoak, edota horiei buruzko artikulua edo informazioak zabaldu, hori egiteko kontraturik ez bada egin behar.

Aldaketa horren xedea da Legearen 71. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatien idazketa hobetzea Hauteskunde Batzorde Zentralak martxoaren 24an emandako 3/2011 Instrukziora egokitzeko, HAOLO legearen 53. artikuluan hauteskunde-kanpaina egiteari buruz jasotako debekuen interpretazioari buruzkoa.

Komunikabideen erabilera ere arautzen da hauteskunde-kanpainaren baitan, eta, zehazki, hauteskunde-publizitatea egiteko saioak kontratatzea debekatzen da, bai titulartasun publikoko komunikabideetan, bai telebista pribatuetako emisoretan (hogeita batgarren puntuak aldatu egiten du Legearen V. tituluko II. kapituluko laugarren sekzioko errubrika, eta hogeita bigarren puntuak aldatu egiten du 5/1990 Legearen 81.1. artikuluko testua).

Hauteskunde-informazioa titulartasun pribatuko komunikabideetan zabaltzeko araubidea HAOLO lege organikoko 66.2. artikulua ezartzen dituen arau eta printzipioen arabera izango da, eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak kontrolatuko du jardun hori (**hogeita hamabigarren artikulua**, 2. idatz-zati bat eransten diona 5/1990 Legearen 85. artikuluari).

Aurreproiektuaren **hogeita bosgarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 72. artikuluko 3. idatz-zatia ezabatzen du, telebista pribatuetako emisoretan hauteskunde-publizitatea egiteko saioak kontratatzea debekatzen duena. Aldiz, Legearen 81. artikulura igortzen du, artikulua horretan hobeto kokaturik dagoelako ustean.

Kostuen murrizketaren ildoan sakontzeko, **hogeita seigarren artikulua** 5/1990 Legearen 75.2 artikulua aldatzen du, HAOLO legeak bere 55.3 artikulua aldatutako termino berberetan. Hala, proposatzen da hautagaitzek hauteskunde-propagandarekin egiten duten gastua % 20 murriztea hauteskunde-kanpainaren baitan baimentzen diren merkataritza-tarteetan kartelak jarriz.

Aurreproiektuaren **hogeita zazpigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 79. artikulua aldatzen du, propaganda jartzeagatik ezarritako zehapenei buruzkoa. Aldaketa horren ondorioz, “*hautagai-zerrendak*” adierazpidea eransten da, testuari zehaztasun handiagoa emateko.

**Hogeita zortzigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 80. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen du. Horren ondorioz, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteek propaganda grafikoa kendu beharko dute baimenik gabe jarritako tokietatik.

Proposatzen da 1. idatz-zati hori aldatzea, argitzeko, propaganda grafikoa kentzeari buruz ari denean, soilik ari dela Eusko Legebiltzarreraren Hauteskundearen Legearen 75. artikuluan Hauteskunde Batzordeak baimendutako tokietatik kanpo jarritako propagandari buruz.

**Hogeita bederatzigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen V. tituluaren II. kapituluaren laugarren ataleko izenburua aldatzen du. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da: «Laugarren Atala. Hauteskunde-kanpainan komunikabideak erabiltzea»

Komunikabideen erabilerari dagokionez, hauteskunde-kanpainaren baitan hauteskunde-publizitatea egiteko saioak kontratatzea debekatzen da, bai titulartasun publikoko komunikabideetan, bai telebista pribatuetako emisoretan (**hogeita hamahirugarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 81.1. artikuluko testua).

Hauteskunde-informazioa titulartasun pribatuko komunikabideetan zabaltzeko araubidea HAOLO lege organikoko 66.2. artikulua ezartzen dituen arau eta printzipioen arabera izango da, eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak kontrolatuko du jardun hori (**hogeita hamabigarren artikulua**, 2. idatz-zati bat gehitzen dio 5/1990 Legearen 85. artikuluari).

Debekatu egiten da hauteskunde-inkestak argitaratu eta haiek zabaldu edo erreproduzitzea edozein komunikabidetan hauteskundeak izan aurreko bost egunetan eta hauteskunde-egunean 20 orduak arte (**hogeita hamahirugarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 87. artikuluko 7. idatz-zatia, hura HAOLO legearen 69.7. artikulura egokitzeke).

**Hogeita hamabosgarren artikulua** bostetik laura murrizten ditu artekari bakoitzari buruzko taloi-orriak. Aldaketa horren xedea da inprimaki hori Estatuak hauteskunde orokorretarako, udal hauteskundeetarako nahiz hauteskunde europearretarako darabilen inprimakiarekin uniformizatzea eta homogeneizatzea, ez baita ukate orri hori.

Bozketari berari dagokionez, aldaketa batzuk egin dira.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzari agintzen zaio prozedura bat arautzeko, ikusteko desgaitasunak edo zailtasunak dituzten pertsonak boto pertsonala eta irisgarria emateko aukera izan dezaten (**hogeita hamaseigarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 104. artikuluko 3. idatz-zatia, HAOLO legearen 87.2. artikulua izan duen aldaketaren araupenera egokitzeke).

Bestetik, arautzen da herritarrek sartu behar dutela boto-papera kutxan, eta ez hauteskunde-mahaiko buruak, orain arte araututa zegoen moduan (**hogeita hamazazpigarren artikulua**, aldatu egiten du 5/1990 Legearen 107. artikuluko 1. idatz-zatia, HAOLO legearen 86.3. artikulua arautzen duenera egokitzeke).

Aurreproiektuaren **hogeita hemezortzigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 109. artikulua aldatzen du. “*Besteak beste*” esamoldea eransten dio “hauteskundeei buruzko informazioa lortzeko” esapidearen aurretik, eta “hauteskunde-kolegioak” terminoaren ordez “*aipatu lokaletako*” adierazpidea hobetsi da.

“Hauteskunde-kolegioak” terminoaren ordez “aipatu lokaletako” esapidea erabiltzea zehaztasun terminologikoko kontua da. “*Besteak beste*” perpausa gehitzearen arrazoia,

berri, honako hau da: hauteskunde-mahaiaren lokalaren barruan, euskal administrazioak izendatutako ordezkariak, partehartzeari eta bozketaren behin behineko emaitzei buruzko datuak batu ez ezik hautesleei bestelako informazioa ematen dietelako; hala nola, non bozkatu behar duten, hala behar izanez gero itsuei hauteskunde-mahaiaraino laguntzen diete, dietak ordaintzen dizkiete mahaietako kideei, etab.

Aurreproiektuaren **hogeita hemeretzigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 112. artikulua 3. idatz-zatia aldatzen du, hauteskunde-mahaiko kideen bozketa-prozedura gainerako hauteskundeetako prozedurekin parekatuz. Aldaketa horren xedea da mahaiko lehendakariaren bozketa Estatuko hauteskunde guztietako nahiz hauteskunde autonomiko guztietako bozketarekin homogeneizatzea, HAOLO legearen 88.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hauteskunde-mahaien boto-zenbaketari dagokionez, hauteskunde-mahaiak botoen zenbaketa nola egin behar duen argitzen da, eta, zehazki, noiz ulertuko den boto bat baliogabea dela boto-paperean aldaketak egin direlako (**berrogeigarren artikulua**, aldatu egin du 5/1990 Legearen 115. artikulua, haien araupena HAOLO legearen 96.2. artikuluko araupenera egokitzeko).

Horrekin, botoa baliogabea izateko kariak zehazten dituen 115. artikulua testua hobetu nahi da, Hauteskunde Batzorde Zentralaren martxoaren 15eko 1/2012 Instrukzioak ezartzen duenarekin bat egiteko (BOE, 67. zk., martxoaren 19koa) eta Espainiako Konstituzio Auzitegiak boto-paperean baliogabetzea dakarten aldaketei buruz uztailaren 14an emandako 123 eta 124/2011 epaiekin bat eginez. Halaber, kontuan hartu behar da Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 167/1991 epaia, uztailaren 19koa, hauteskunde-mahaiari ez dagokion beste hauteskunde-barruti bateko boto-paperean baliogabetzeari buruzkoa.

Bestalde, **berrogeita batgarren artikulua** 124 bis artikulua erantsen dio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legeari, Lurralde Historikoaren Hauteskunde Batzordeak sartuz aurreproiektuan boto teknikoaren (AEHE botoa) zenbaketa egiteko. Horrek hobekuntza tekniko bat suposatzen du.

**Berrogeita bigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 129. artikuluko 9. idatz-zatia aldatzen du, hautetsiak diren pertsonen izendatze-aktari buruzkoa. Horrekin, 129.9 artikulua azken paragrafoaren idazketa hobetu nahi da, zehazteko Euskal Administrazioaren ordezkariari ematen zaion kopia, ezagutzeko, informatzeko eta herritarrei zabaltzeko xede hutsez ematen zaiola.

Aurreproiektuaren **berrogeita laugarren artikulua** aldatu egiten du Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen V. tituluko XI. kapituluaren numerazioa eta izenburua. Hala, “X. kapitulu. Post arrunt bidez botatzeko jardunbidea” izatetik “X. kapitulu. Posta bidezko botoa” izatera pasatzen da. Numerazio-aldaketa boto elektronikoa ezabatzei dator.

**Berrogeita bosgarren eta berrogeita seigarren artikuluek** aldatu egiten dituzte, hurrenez hurren, 132 octies artikulua –132 bis izatera pasatzen dena- eta 132 nonies –



132 ter izatera pasatzen dena-. Numerazio-aldaketok boto elektronikoa ezabatzetik datoz.

Aurreproiektuaren **berrogeita zortzigarren artikulua** 9. idatz-zatia eransten dio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legearen 144. artikuluari, artikulua horretako 7. idatz-zatian aurreikusitako hauteskundeetarako dirulaguntzen bigarren aurrerapenari buruzkoa. Hain zuzen, artikulua horren idazketaren zati bat ezabatzen da, ez baita beharrezkotzat jotzen lege-aurreproiektuak hitzez hitz jaso dezala 1/2003 eta 3/2011 Legeetako artikulua oinarritzeko ezartzen dena; izan ere, edozein kasutan, derrigor aplikatu beharrekoak dira hauteskunde autonomikoetan.

**Berrogeita hamargarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legearen 146. artikuluko h) hizkia aldatzen du, hauteskunde-gastutzat hartzeko hauteskunde-deialdia eta hautetsien izendapena egin bitartean alderdiek boto-asmoari buruz egiten dituzten inkestak eta zundaketak. Alderdi politikoek kontuan hartu beharko dituzte hauteskunde-inkestok eta –zundaketok hauteskundeetarako behar diren zerbitzuak eta jarduerak behar bezala antolatzen.

Gastu hori 146 h) artikuluan sartzen da, eta ez doa Hauteskunde Batzorde Zentralak 2012ko azaroaren 15ean hartutako erabakiaren aurka. Erabaki hartan, HBZk zundaketa eta inkesta horiek HAOLO legearen 130 artikuluko b) hizkian aurreikusita ez daudela besterik ez zuen esan –hautagaitzen propaganda eta publizitateari buruzkoa-, baina horrek ez du esan nahi gastu berri hori HAOLO legearen 130. artikuluko h) hizkitik ezabatzen denik.

D) Hauteskundeetarako dirulaguntzak:

**Berrogeita hamabigarren artikulua** Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legearen 151. artikulua aldatzen du, aulki, boto eta hauteskunde-barruti bakoitzeko hauteskunde-dirulaguntzen zenbatekoa igoz Ekonomia eta Ogasun sailburuak 2012ko abuztuaren 30ean emandako Aginduaren arabera (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legean jasotako zenbatekoei buruzkoa).

Halaber, igo egiten da hautesleei eginiko zuzeneko bidalketetatik (propaganda, kartazal, boto-paper edo hauteskunde-publizitateko beste edozein elementu –mailinga-) eratorritako hauteskunde-gastuei aurre egiteko dirulaguntzen zenbatekoa.

Era berean, ezabatu egiten da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderen Legearen 151.3 artikulua, lege bereko laugarren xedapen gehigarrian jasota baitago.

E) Emakumeen aldeko ekintza positiboak:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako EAEn indarrean den legeak arautzen duenaren esparruan, lege honek ekintza positibo batzuk arautzen ditu emakumeen alde, autonomia-erkidegoko hauteskunde-prozesuetan. Izan ere, hauteskunde-mahaiko kide ez izateko zuri bideen kopurua handitu da haien zatik, eta hautagaitzetako ordezkoren tartari ere %50eko kuota aplikagarri izango zaie.

Zehazki, zuribide moduan onartu dira haurdunaldia aurreratua izatea eta edoskitze naturaleko garaian izatea (**hamalagarren artikulua**, 5/1990 Legearen 42. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzekoa).

Ildo beretik, lege-aurreproiektuaren **hogeita batgarren artikulua** 5. idatz-zatia eransten dio 5/1990 Legearen 50. artikuluari. Idatz-zati horretan adierazten denez, hautagaitzek continuum bat osatzen dute, eta ordezkoei, berriz, zerrendako 25 zenbakiko titularrarekin, gehienez, 6 izeneko zati berri bat, hautagaitza bakoitzak dituen ordezkoi-kopuruaren arabera; horri ere %50eko kuota aplikatu behar zaio, aurreko zatiei bezala.

Horren arrazoia da hautagaitzetako ordezkoei ere genero-kuotak aplikatzea, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak 2005eko martxoaren 17an hartutako erabakia betetze aldera.

F) Beste berrikuntza tekniko batzuk:

Aurreproiektu honek beste berrikuntza tekniko batzuk egiten ditu: zehazki, eurotan adierazten ditu 5/1990 Legeak pezetatan adierazten zituen diru-zenbatekoak, eta eguneratu egin ditu legeak euro konstantetan adierazten zituen kantitateak (**berrogeita hamahirugarren artikulua**, Legearen laugarren xedapen gehigarriaren testua aldatzen duena).

Aurreproiektuak jasotzen dituen beste alderdi batzuk dira, besteak beste, teknologia berrien erabilera arautzen duela hauteskunde-dokumentazioa betetzeko (**hogeita hamalagarren artikulua**, Legearen 88.1 artikulua aldatzen duena), eta hauteskundeetako sekzio, mahai eta lokalak argitaratzeko (hamahirugarren artikulua, 5/1990 Legearen 38. artikulua 3. idatz-zatia aldatzen duena).

Bestalde, aurreproiektuaren **hamazazpigarren artikulua** aldatu egiten du Legearen 46. artikuluko 3. idatz-zatiaren testua, eta haren helburua da aurreko testuak bozketa-egunaren zehaztapenari buruz sor zitzakeen zalantzak argitzea.

### 2.2.3.- Xedapenak: Gehigarriak, Iragankorrak, Azkenak eta Indargabetzaile Bakarra

Lehen xedapen gehigarriak 2013ko urriaren 1era eguneratzen ditu aulkia lortu duten hautagaitzei ematen zaizkien dirulaguntza publikoen zenbatekoa, lege honetako bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa betetze aldera.

Bigarren xedapen gehigarriak gaitu egiten du Eusko Jaurlaritza Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan beharrezkotzat jotako proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen zaizkion teknologia berriak erabilia, teknologia horiek ezartzea posible den aztertze xedez.

Aurreproiektuaren lehen xedapen iragankorrak ezartzen du 2012 ondorengo Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeetan, hautagaitzetako hauteskunde-gastuaren muga %15 murriztuko dela eguneratutako zenbatekoaren gaineratik, ogasunaren ardura duen sailaren aginduz, hauteskunde autonomikoetarako deialdia izan eta hurrengo zazpi egunetan.

Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak egingo diren ekitaldiari erreparatuta, boto, aulki eta hauteskunde-barruti bakoitzarengatik hautagaitzei ematen zaizkien hauteskundeetarako diru-laguntzen zenbatekoak ez handitzea proposatzen du bigarren xedapen iragankorrak, eta neurri hori bera proposatzen du hauteskunde-propagandaren bidalketarentzat.

Indargabetzeko xedapen bakarrak indarrik gabe uzten ditu artikulua hauek: «X. kapitulua.- Boto elektronikoaren Prozedura» eta haren artikulua batzuk: 132 Bis, 132 Ter, 132 Quater, 132 Quinques, 132 Sexies eta 132 Septies; baita Lehen Azken Xedapena eta boto elektronikoari buruzko Definizioen Eranskina ere, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzeko ekainaren 19ko 15/1998 Legeak emandako idazketetan.

Aurreproiektuaren lehen azken xedapenak xedatzen du Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ezarriko dituela irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak garatu bitartean, Ezintasuna duten pertsonen aukeraberdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun orokorrari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Estatuko Legearen Bosgarren Azken Xedapenean aurreikusitakoaren arabera.

Bigarren azken xedapenak, azkenik, arautzen du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko dela Legea indarrean.

### **3.- LEGEGINTZA-TEKNIKA**

Araugintza-teknikari dagokionez, aurreproiektuak bete egiten ditu, oro har, legeen, dekretuen, aginduen eta ebazpenen proiektuak egiteko irizpideak, Gobernu Kontseiluak 1993 martxoaren 23an onartu zituenak; eta, zentzu zabal batean, bete egiten ditu, halaber, Lehendakariak 1994ko martxoaren 18an eman zituen jarraibideak hizkuntza sexista desagerrarazteko arau-xedapenetatik, administrazio-agirietatik eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza instituzionalari dagozkion informazioko eta zabalkundeko ekintzetatik.

Gorago adierazi dugun moduan, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aplikagarriak diren HAULO lege organikoko xedapenak adierazteko aurreproiektuak erabili duen legegintza-teknika izan da, alde batetik, lege horren xedapen batzuk osorik kopiatzea Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Lege autonomikoan, eta, bestetik, HAULO legearen artikulua oinarrikoetarako igorpena egitea, haren arauak laburtuta kopiatu ondoren.

Hau iritzi du Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak: “Estatuko arauetarako igorpenak egitean, soilik kopiatu behar dira proiektua ulertzeko eta hari koherentzia emateko

ezinbestekoak diren kasuetan, eta legegintza-teknika hori balia daiteke arauaren mezua kopian —osorik eta zehaztasunez—, edo Estatuko araurako igorpen bakuna eginez, jatorrizko arauaren izendapena eta haren oinarrizko izaera adieraziz” (Aholku Batzordearen 163/2007 erabakia, 62-64 par.).

Aurreproiektu honen kasuan, eta goian adierazi diren arrazoiak medio, bi teknika horiek erabili dira, uste izan baita ezinbestekoa zela Estatuko arauak kopiatzea edo haietarako igorpenak egitea, proiektua ulertzeko eta hari koherentzia emateko.

Lege organikoaren arauak kopiatzean, zorroztasunez errespetatu da jatorrizko zuzenbide-iturriaren testua, nahiz eta ez den iturri horren aipurik egiten. Hori egiten bada, testuaren irakurgarritasuna kaltetuko da, eta kalte hori handiagoa izango da berriazko aipu horrek ekar dezakeen segurtasun juridikoaren indartzea baino.

HAOLO lege organikorako igorpen esanbidezkoa egiten den kasuetan, xedapen konkretuetara egiten da, HAOLO legerako igorpen generiko eta dinamiko bat egin beharrean. Hala ere, igorpen generiko batek zaildu egingo luke autonomia-erkidegoko arauaren ulermena.

#### 4.- IZAPIDEAK

“Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko legea bosgarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektua” izapidetzeko prozedurari dagokionez, aintzat hartu behar da zer arautzen duen abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoak (254. zenbakiko EHAA, 2003ko abenduaren 30ekoa).

Adierazitako 8/2003 lege horrek **entzunaldiaren** eta **jendaurreko erakustaldiaren** izapideak egin behar direla arautzen du. Arauaren xedea da Espainiako konstituzioaren 23. artikulua aitortzen duen sufragio-eskubidea arautzea. Konstituzioaren I. tituluko, 2. kapituluko 1. sekzioan kokatzen da arau hori, herritarren oinarrizko eskubideen artean, eta, ondorioz, ezinbestekoa da jendaurreko erakustaldiaren izapidea betetzea hura onartzeko prozeduraren baitan.

Ezinbestekoa da **Generoaren araberako Inpaktuari buruzko txostena** egitea, hori arautzen baitu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19.1 artikulua.

**Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena** egitea ezinbestekoa da, hori arautzen baitute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluek eta Eusko Jaurlaritzak onartutako jarraibideek (2007ko otsailaren 13ko erabakia, 53. zenbakiko EHAA, martxoaren 13koa).

Derrigorrezkoa da **Kultura Sailaren Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendaritzaren txostena** egitea, hori agintzen baitu abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuko 2. artikulua. Arauak euskararen erabileraren normalizazioan izango duen eragina eta hizkuntza-alorrean indarrean den araubidea betetzen duen aztertu behar du txosten horrek.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoak, 10. artikuluan arautzen du **memoria ekonomiko bat eta memoria labor bat** egin behar direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1 a) artikulua arautzen du **Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena derrigorrezkotasuna**.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 97/2004 Legearen 3.1.c) artikulua arautzen du **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren derrigorrezkotasuna**.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenari buruz, adierazi behar da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen amaierako xedapenetatik lehenengoak aldatu egiten dituela Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 23.1. eta 27.1. artikulua; hala, 14/1994 Legearen 27.1. artikulua berriak arautzen du Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eman baino lehen egin behar dela arau- eta ekonomia-kontrola egiteko txostena.

Azkenik, lege-aurreproiektuaren proiektuko testua onartu behar du Jaurlaritzak, eta Eusko Legebiltzarrerara igorri behar da, lege-proiektu gisa izapidetua izan dadin.

## 5.- ONDORIOAK

Nire ustez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko legea bosgarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektuak egiten duen araupena bat dator Espainiako Konstituzioarekin, EAeko Autonomia Estatutuarekin eta ordenamendu juridikoko gainerako arauarekin.

Hau da, nik, behean izenpetzen dudana letratuak, egiten dudana txostena, zuzenbide-oinarri sendogoko arrazoibideen menean uzten dudalarik.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 25a

Egoitz Laburu Rodríguez

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzako legelaria